

107. OSOKO BILKURAKO AKTA

Zumaia herrian, 2016ko abenduaren 16an, arratsaldeko seietan, udaletxe honetako batzar aretoan Udalbatza eratu da ezohiko bilkura egiteko, aurrez zehaztutako eguneko aztergaien arabera. Garaiz eta zuzen deitu direlarik, Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

Lehendakaria: Oier Korta Esnal jna.

Bertaratutako zinegotziak: M. Cruz Alvarez Aparicio and.
Jon Joseba Iraola Rezola jna.
Cristina Vicente Iciar and.
Arritokieta Iribar Egaña and.
Joseba Josu Azpiaz Azkarra jna.
Josu Arrieta Arriola jna.
Ione Muguerza Egaña jna.
Nerea Eizagirre Telleria and.
Arritokieta Marañon Basarte and.

Ez bertaratuak Xabier Garmendia Iztueta jna.
Gotzon Embil Unanue jna.
Alex Oliden Antia jna.

Idazkaria: Gorka Urgoiti Agirre



EGUNEKO AZTERGAIK

1.1.- 2017RAKO ORDENANTZA FISKALEN BEHIN BETIKO ONARPENA, BIDEZKOA BADA.

2016KO ABENDUAREN 12KO OGASUN BATZORDEAREN IRIZPENA, 2017. URTERAKO ORDENANTZA FISKALEI EZARRITAKO ALDAKETA ONARTZEA ALA EZ.

AURREKARIAK

1.- 2016ko urriaren 10eko Ogasun Batzordean 2017. urterako ordenantzaren behin-behineko proposamena aurkeztu zen. Ondoren, 2017rako ordenantza fiskalen behin-behineko onespenerako Irizpena bozkatu zen eta osoko bilkurara eraman zen.

2.-2016ko urriaren 14ko Osoko Bilkuraren ez ohiko batzarraldian, zinegotzien aldeko gehiengo botoekin (Alde: 6 EAJ, 1 PSE-EE; Aurka: 6 BILDU) 2017.urterako ordenantza fiskalak onartu zituzten behin-behineko izaeraz.

3.-Ordenantza hauek 2016ko urriaren 20an argitaratu ziren GAOn eta jendaurreko erakustaldian zeuden bitartean, Euskal Autonomi Erkidegoko Auzitegi Nagusitik sententzia bat iritsi zitzaigun, bertan, Telefonica Moviles España, S.A.U-k 2016rako Ordenantza Fiskalen gainean ezarri zuen errekurso kontentzioso-administratiboa partzialki onartzen zitzaien. Horren ondorioz, 2016ko Ordenantza Fiskaletako atal batzuk baliogabe deklaratzeko sententzia horrek.

Horren ondorioz, erredakzio berria egiten da ebazpen judizialaren arabera aldatutakoarekin, eta 2017rako behin betiko Ordenantza Fiskalen aldaketaren erredakzio definitiboa egiten da.

4.- Irizpen honi 2017rako Ordenantza Fiskalen aldaketaren erredakzio definitiboa eranstean zaio.(1.Eranskina)

IRIZPENA

Ondorioz, 2016ko abenduaren 12an, 4ren (2 EAJ, 1 PSE-EE eta 1 EH BILDU) aldeko botoekin, Ogasun Batzordeak aldeko **irizpena jasotzen du** eta honako PROPOSAMEN hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47 artikuluan araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan dauden gehiengo sinplea beharko da):


1.- Onartzea, behin betikoetan 2017.urterako Ordenantza Fiskalen aldaketaren erredakzio definitiboa uztailaren 5eko 11/1989 Gipuzkoako Hazienda Lokalen Foru Aruaren 16. artikularen arabera.

2. Behin betiko erabakiaren testu bateratua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da, eta ez da indarrean jarriko argitaratzen ez den bitartean.

Zumaian, 2016ko abenduaren 12an

Kontu-hartzailea

Joana Zubizarreta Pikabea



Zumaia Udala
KONTUHARTZAILETZA

2



Marikruz Alvarezek (EAJ-PNV) gaia azaldu du esanez Telefonica, moviles-ek ordenantza fiskalen aurka demanda bat jarri zuela kontentziosoak arrazoia eman zion; orduan egin den gauza bakarra izan da ordenantzaren testua moldatu arazorik ez izateko horren aurrean.

Joseba Josu Azpiazuk (EH BILDU) esan du, diktamenean baietza bozkatu zuela pentsatzen bozkatu behar zen gauza bakarra zela telefonicaren alegazioa, baina geroago abixatu zioten bai Marikruzek (eskerrak eman dizkio) eta bai kontu hartzaileak badirudi bozkatu behar dena da berriro ere ordenantza fiskalak osoak, orduan aurrekoan ezezkoa bozkatu zutenez, berriro ezezkoa errepikatzen dute, aurrekoan emandako arrazoiengatik.

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 5 boto (4 EAJ-PNV, 1 ES-SV)

Kontrako botoak: 5 boto (5 EH BILDU),

Abstentzioak: 0

ERABAKIA:. 5 aldeko boto eta 5 kontrakoak. Bigarren bozketa egin da berdinketa hauste aldera.

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 5 boto (4 EAJ-PNV, 1 ES-SV)

Kontrako botoak: 5 boto (5 EH BILDU),

**Abstentzioak: 0**

ERABAKIA:. Alkatearen botoaren balio bikoitzaren bitartez, 2017. Ekitaldirako ordenantza fiskalak behin betikoz onartu dira

1.2.- UDALAREN 11. ETA 13. KREDITU ALDAKETEN BERRI EMATEA.

KREDITU GEHIGARRIEN PROPOSAMENA

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0100.601.153.20.05 2016	JADARREKO HORMA	0,00	345.000,00	345.000,00
GUZTIRA		0,00	345.000,00	345.000,00

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0000.870.920.00.01 2016	DIRUZAINZAKO GERAKINA GASTU OROKORRETAR	345.000,00
FINANTZAKETA GUZTIRA			345.000,00

KODEEN AZALPENA

- a) Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.
- b) Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintza gerakina
- c) Sarrera berri edo handiagoak.
- d) Kredituen baliogabetze baja.
- e) Kreditu eragiketak.

Zumaia, 2016ko abenduaren 2an

Ogasuneko Batzorde Informatiboko burua



Udaleko Kontu-hartzailea naizen honek, txosten hau idatzi dut Alkateak 2016ko abenduaren 5eko Dekretuan agindutakoa betez, eta 1174/1987 Errege Dekretuak, irailaren 18koak, udal administrazioan estatu mailako gaikuntza duten funtzionarioen araubide juridikoa erregulatzen duenak, 4.1. artikulua g) eta h) letretan ematen dizkidan funtzioez baliatuz.

TXOSTENA

Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak 31.1 artikuluan ezartzen duenez, tributu izaerarik gabeko hainbat sarrerak, artikulua horren 2. apartatuan adierazitakoak, aurrekontu kreditu berriak gaitu ditzake, edota hasieran onartutakoak handitu.

Era berean, artikulua berak, 6. apartatuaren bitartez, ezartzen du tributu izaerako sarrera berriek edota handiagoek ere aurrekontu kreditu berriak gaitu ditzaketela, baina gastuen partida zabalgarrietan eta kreditu globalean soilik.

Adierazitako artikulua 4. apartatuan gaineratzen denez, pertsona natural edo juridikoen ekarpenak edota ekarpen konpromisoak (2.a apartatua), eta beste herri entitate batzuen aurrekontuetatik nahiz pertsona edota entitate pribatuetatik datozen sarrerak (2.e apartatua) hitzartutako proiektuak egiteko erabili beharko dira. Halaber, ondareko ondasunen salmentatik (2.b apartatua) eta maileguz itzulketa edo amortizazio aurreratutik (2.d apartatua) datozen sarrerak, beti ere kapital eragiketak (inbertsioak) finantzatzeko erabili beharko dira.

Nire ardurapean ditudan kontabilitate liburuek eta gai honi buruz ditudan gainerako agiriek jasotzen duten informazioaren arabera, eta adierazitako araudia jarraituz, 22.000,00 euroko kreditu gaikuntza proposatzen dut, eta ondoko eranskinean jaso ditut horren finantzaketa eta gainerako xehetasunak.

Indarrean dagoen araudiaren arabera, kreditu gaikuntzarako espedientea onartzeko eskumena Alkateari dagokio sarrera finalistekin finantzatzen denean, baita gaikuntzak kreditu zabalgarriak edota kreditu globala finantzatzen dituztenean ere. Gainerako kasuetan, berriz, onarpena Udaltzari dagokio. Nolanahi ere, jendaurreko informazio, erreklamazio eta behin betiko argitalpen tramiteak ez dira beharrezkoak.

Zumaia, 2016ko abenduaren 5ean
Kontu-hartzailea

Marikruz Alvarezek (EAJ-PNV) 11. kreditu aldaketa azaldu du, Jadarreko horman gastua 345.000 €tan handitzea, hain zuzen, eta sarrera izango da diruzaintza gerakinetik eta baita ere sabaian erabilera publikoa duten garajeetan sarrera 22.000 €tan handitzen dela bizilagunak egiten duten ekarpenetatik eta ondorioz, kontrapartida bezala gastua ere zenbateko berdinean handitzen dela. Gero ere bai aipatu du kontu hartzaileak txostena beti bezala prestatu duela eta azaldu duela nola gastu araua ez den betetzen baina gerakina erabiltzen denez kreditu hauek aurrera eraman ahal izateko, azkenean arazorik ez dagoela eta ez dela egin behar beste txostenik.

Joseba Josu Azpiazu (EH BILDU): 11. kreditu aldaketa Jadarrekoa ez da bozkatu behar baina bakarrik batzordean komentatu zuel, hau dagoeneko 2015eko aurrekontuetan sartu zela, hemen gainera plenoan onartu zela kreditu aldaketa eta hori berez itxi zenean urtea orain dela 5 edo 6 hilabete maiatzean, apirilean, itxiera egiten denean, hori berriz – incorporación de crédito- esaten dena pasatu behar zen hurrengo urtera eta aipatu du hori itxiera egiten denean udal



Zumaia Udala

2016IAKU0007-003-005

gobernuak erabaki behar duela zein partida pasatzen diren hurrengo urtera eta zeintzuk ez, bere beharren arabera, baina normalean partida bat exekutatuta dagoenean zati bat beti pasatzen da, bestela hurrengo urtean geratzen zara dirurik ez daukazula; zehaztu nahi izan du, esanez udal gobernuak ez zuela erabaki -incorporación de créditos- hori egitea edo despiste bat izan da, baina nolana ere, hanka sartze oso potoloa dela esan du; eta galdetu du ea lehengo kontu hartzaileak berak informatu zizuen edo ez.

Marikruz Alvarezek (EAJ-PNV) esan du despistea izan bazen, ba, denok garela pertsonak eta denok akatsak egiten ditugula, baina kasualitatea ez zen izan despistea. Premiatu ditu kontuhartzailetzan galdetzea, izan ere Esther Aizpuruarekin landu zuela aurrekontua, bere lehenengo aurrekontua izan zen, kontu hartzailea oporretara joan zen eta abar. Esperientzi falta ere bai izugarria baita ere, aurten ez zaiona gertatuko, baina kasualitatea, bai, eskatu zela eta berez gainera kreditu gehigarri abenduan egin zela eta uste duela azaroa-abendua izan zela eta bestela ez bagenuen intentziorik edukiko pasatzera beste urtera pixkat absurdoa izango litzatekeela; kreditu hori, gehigarri hori, urte amaieran ekartzea plenora, alegia, zeren ez dizu ematen denbora exekutatzeke obra hori hilabete batean; orduan errepikatzen du, despistea izan bazen, barkamena eskatu du, despistatu egin bazen, baina ez zaiola iruditzen, hanka sartze hain potoloa denik eta ez dela bere hanka sartzea izan. Gaineratu du despistea izan bazen denena izango dela zeren batzordeetan lantzen direla eta denek dutela hitza

Joseba Josu Azpiazu (EH BILDU) galdetu du ea egin zen kreditu inkorporazioa, hasieran egiten dena.

Marikruz Alvarezek (EAJ-PNV) esan du berak hartu zuela sorpresa handiena, esan ziotenean ez zegoela egina.

Alkateak esan du horma honekin ez garela oso ondo hasi, ze lehenago ere erori egin da, aurreko legealdian eta oraingoan ematen du ez dugula asmatzen, kreditu aldaketa eta hauekin, ea ditxosozko horma hori behingoagatik arreglatzen dugun.

Gero argitu du, 1.3. irizpena, udalaren 12. kreditu aldaketa onartzea, bidezko bada, puntu hau gaurko plenotik gai zerrendatik atera egingo duela, gaur goizean kontu hartzailetzarekin egon dela hizketan, eta 2017rako aurrekontuetan sartzeko inkorporatzea ez dela bide egokiena eta seguruenik egingo dela "binkulazio" bitartez eta Alkate dekretuaren bitartez eta oraindik beste hamabost egun daudela abenduko azkeneko pleno bitarteraino, eta tarte horretan kontu hartzailek gaia hobeto aztertu nahi duela eta hori dela eta gaurko plenotik, gai-zerrendatik atera egingo du.



Zumaia Udala

2016IAKU0007-003-005

Joseba Josu Azpiazuk (EH BILDU) esan du berez hemen puntu honetan abstenitu egin behar zirela, alde batetik, diruaren transbasea kreditu aldaketa egiteko arazorik ez daukatelako, skate parkea eskolan egin beharrean beste aldean egin behar baldin bada, ba, hobeto izango dela baina seguraski eskolak han ez zuela nahiko egin, toki gutxiago edukiko dutelako beste gauzetarako, baina bai informazioa ez zutela, Marikruzek erakutsi ziola ordenagailuan zertaz osatzen zen partida hori, frontoi luzearena, hiru, lau gauza azaltzen ziren eta bat hau zen baina galdetu duela eta hirigintza edo kirolean ez dela informatu eta hori zela beraien abstentzioaren arrazoia.

Eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, arratsaldeko seiak eta hamaika minutu direnean eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

Idazkaria